

**Zerbitzuak zenbait esleipen-irizpide kontuan hartzen dituen prozedura irekiaren bidez kontratatzeako klausula administratibo partikularren orri eredugarriaren onarpena.**

Urduñako Udaltzaren honako erabaki hau hartu zuen 2016ko azaroaren 30ean egindako ezohiko bileran:

Oso egokia da zerbitzuak zenbait esleipen-irizpide kontuan hartzen dituen prozedura irekiaren bidez kontratatzeako klausula administratibo partikularren orri eredugarria onartzea.

Honako hauxe da orri eredugarri horren edukia:

**“ZERBITZUAK ZENBAIT ESLEIPEN-IRIZPIDE KONTUAN HARTZEN DITUEN PROZEDURA  
IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN  
ORRI EREDUGARRIA**

**I.- KONTRATUKO ELEMENTUAK**

**1. Kontratuaren helburua.**

*Orri honetako karatulan azaldutako prestazioa izango da kontratu honen helburua.*

*Prestazioa honako hauexetan adierazitako baldintzen arabera izango da: orri hau, bere karatula, zehaztapen tekniko partikularren orria eta, hala badagokio, aipatutako edozein orritako eranskinak, kontratuaren osagaiak direlako eta kontratuzko izaera dutelako.*

*Orriko karatulan halaxe baimenduz gero, lizitatzailak zehaztutako eskakizunen eta baldintzen aldagaiak aurkeztu ahal izango dituzte puntu horretan adierazitako gehienezko kopuruan.*

*Kontratua sortetan zatikatzen bada, aparte gauzatu ahal izango den unitate funtzionala izango da sorta bakoitzaren helburua. Sorta bakoitza aparte esleitu ahal izango da.*

**2. Bete beharreko premia administratiboak.**

*Kontratuaren helburua eta bete beharreko premiak orriko karatulan adierazitakoak izango dira.*

**3. Araubide juridikoa.**

*Kontratuaren izaera administratiboa izango da, eta honako hauexen arabera arautuko da:*

- Karatulako zehaztapenak osagai dituen orri honetan eta zehaztapen teknikoen orrian azaldutako klausulak.*
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (SPKLTB).*
- Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legeko Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (APKLAO).*
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen garapen partzialerako 817/2009 Errege Dekretua.*
- Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko 1987ko apirilaren 2ko Legea eta Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenetako Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua (TAOL).*
- 1955eko uztailaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Tokiko Korporazioetako Zerbitzuei buruzko Araudiko III. titulua.*
- Euskadiko Tokiko Instituzioei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea.*

- Estatuan, autonomia-mailan eta tokian-tokian kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, betiere, tokian-tokian ezarri beharrekoak badira.
- Horren osagarri, zuzenbide administratiboko gainerako arauak eta, besterik ezean, zuzenbide pribatuko arauak ezarriko dira.

Enpresariak kontratua bera, bertako edozein baldintza, bertan erantsitako agiriak edo administrazioak xedatutako eta hitzartutakoaren betearazpenean ezarri beharreko era guztietako jarraibideak, orriak edo arauak zein diren jakin ez arren, derrigorrean bete beharko ditu.

Orri honetan eta zehaztaperen teknikoen orrian adierazitakoa bat ez badator, orri honetan xedatutakoa lehenetsiko da, gai eta zehaztaperen teknikoetan izan ezik.

#### **4. Kontratuko alderdiak.**

##### **A) Administrazio kontratugilea.**

- Kontratatzeke ahalmena.- Kontratazio-organoa orri honetako karatulan adierazitakoa izango da.
- Kontratuko arduraduna.- Hala badagokio, orri honetako karatulan adierazitakoa izango da edo kontratazio-organoak kontratuaren betearazpenerako zehaztu dezakeena.
- Kontratugilearen profila.- Orri honetako karatulan adierazitakoa izango da. Web instituzionalean egongo da ikusgai.

##### **B) Kontratista.**

Kontratatzeke gaitasuna.- Pertsona natural edo juridiko espainiarrek edo atzerriarrek Urduñako Udalarekin kontratatu ahal izango dute, betiere, jarduteko erabateko gaitasunik badute, kontratatzeke debekurik ez badaukate eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala dutela egiaztatzen badute edo, SPKLTBren arabera halaxe eskatzen denean, behar bezala sailkatuta badaude. Era berean, enpresariak euren kasuan eduki beharreko gaikuntza enpresarial edo profesionala ere izan beharko dute, kontratuaren helburua den jarduera edo prestazioa garatzeko.

a) Pertsona juridikoak: kontratuetako esleipendunak izan ahalko dira, bertan zehaztutako prestazioak euren estatutu edo sorrera-arauen arabera jardueraren helburuen, xedearen edo eremuaren barruan kokatuta badaude.

b) Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak diren enpresari ez-espainiarrak: kontratatzeke gaitasuna izango dute finkatuta daudeneko estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko prestazioa garatzeko gaikuntza dutenean.

c) Enpresarien elkarteak: enpresariak aldi baterako egindako elkarteek Urduñako Udalarekin kontratatu ahal izango dute. Beraz, enpresariak betebeharrak solidarioak izango dute, baina ez dituzte elkarre horiek eskritura publikoan eratu beharko harik eta kontratua haien alde esleitu arte. Halaber, elkarteko ordezkari edo ahalordedun bakarrik izendatu beharko dute, eta ahalorde askietsiak izan beharko ditu, eskubideak erabiltzeko eta kontratua amaitu arte haren ondorioz sortutako betebeharrak guztiak betetzeko. Hala ere, ahalorde mankomunatuak ere egon ahal izango dira, zenbateko adierazgarriko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Enpresarien aldi baterako elkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin, harik eta kontratua bera amaitu arte.

#### **5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta kontratuaren lizitazioarako aurrekontua.**

Publizitatea eta esleipenerako prozedura zehazteko asmoz, orri honetako karatulan adierazitakoa izango da kontratu honetarako zenbatetsitako balioa, administrazioak jasandako BEZa kontuan hartu gabe.

Kontraturako ezarritako lizitazio-aurrekontua karatulan zehaztutakoa izango da, eta, kalkulatzeko orduan, kontratuzko agirien eta indarreko legeriaren arabera esleipendunaren konturakoak diren gastu eta balioespen-faktore guztiak hartuko dira kontuan, baita era guztietako zergak ere, nahiz eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa (BEZ) aparteko kontu-sail moduan agertu.

Eskaintzetarako erabili eta zenbateko handiagokoa den edozein eskaintzaren gaitzespena zehaztuko duen lizitazio-mota karatulan adierazitakoa izango da. Hobekuntza beheranzkoa izango da, eta zenbateko zehatza zuzkitu beharko da.

#### **6. Aurrekontu-kreditua.**

Badago kreditu zehatzik, kontratu hau betearaztean administrazioarentzat sortzen diren betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko, eta horren aurrekontu-zuzkidura orri honetako karatulan agertzen dena izango da.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, hurrengo aurrekontu-ekitaldiei begira, kasuan kasuko kredituak erreserbatzeko konpromisoa hartuko du udalak.

Aurretiaz izapidetzen diren kontratazio-espedienteetan, esleipena eten egin ahal izango da kasuan kasuko ekitaldian behar besteko kreditu egokirik ez badago.

#### **7. Kontratuaren iraupena.**

Kontratuaren iraupenerako edo betearazpenerako gehienezko epea orri honetako karatulan zehaztutakoa izango da.

Karatulan bertan halaxe aurreikusiz gero, kontratua berariaz eta alderdien arteko adostasunpean luzatu ahal izango da prestazioei eusteko. Kontratazio-organoak luzapenari buruzko erabakia hartuko du, eta enpresariak derrigorrean bete beharko du, karatulan bertan aurkakoa aurreikusten ez bada, alderdien arteko isilbidezko adostasunpean egin ez dadin. Luzapena(k) ezin izango da/dira aparte edo batera hitzartu jatorriz zehaztutakoa baino luzeagoa den eperako.

Edozein arrazoirengatik kontratua ohiko edo ezohiko moduan amaitzen bada, zerbitzuaren jarraipena bermatzeko asmoz, kontratazio-organoak kontratuaren jarraipena ebatzi ahal izango du harik eta kontratu berria esleitu arte, baina epealdi hori ez da inolaz ere sei hilabetetik gorakoa izango.

Zerbitzuen kontratuen helburua obra-zuzendaritzan laguntzea edo proiektuak modu integratuan kudeatzea denean, loturapeko obra-kontratuak beste iraungo dute, eta obrak likidatzeko zenbatetsitako epea ere hartu beharko da kontuan.

#### **8. Kontratazio-espedientearen izapideak.**

Kontratazio-espedientea ohiko moduan, premiaz edo garapen-bidean izapidetuko da, orri honetako karatulan adierazitakoaren arabera.

## **II. LIZITAZIOA**

#### **9. Esleipenerako prozedura.**

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitu zaio eskaintza ekonomiko abantailatsuenari, eskaintzak balioesteko asmoz orri honetako karatulan zehaztutako irizpideak kontuan hartuta. Esleipenerako irizpide horiek lotune zuzena eduki beharko dute kontratuaren helburuarekin, eta karatulan bertan ere adierazi beharko da zein den haien haztapen erlatiboa.

Orri honetako karatulan bertan adierazten da zergatik aukeratu den esleipenerako prozedura hau.

Prozedura irekian, enpresari interesdun guztiek proposamena aurkeztu ahal izango dute, baina ezin izango dituzte kontratuko baldintzak inolaz ere negoziatu lizitatzailerekin.

#### **10. Lizitazioaren publizitatea.**

Lizitazio honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, betiere, SPKLTBko 13.-17. artikuluetan aurreikusitako arauketa harmonizatupeko kontratua ez bada, halakoetan lizitazioa EBAOn, BOEn eta BAOen argitaratu beharko delako SPKLTBko 159. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proposamenak aurkezteko epea honelaxe zenbatuko da:

- EBAOn argitaratu behar ez denez, lizitazioa BAOn bakarrik argitaratzen denean, prozedura irekirako proposamenak aurkezteko epea karatulan adierazitakoa izango da, eta, gutxienez, hamabost egun naturalekoa izango da lizitazioaren iragarkia argitaratzen denetik hasita.
- Lizitazioa EBAOn eta BOEn argitaratu behar denean, orriko karatulan eta lizitazioaren iragarkietan adierazitakoa izango da epea, eta, gutxienez, berrogei egun naturalekoa izango da kontratuaren iragarkia EBAOra bidaltzen denetik hasita.

Epearen azken eguna larunbata, igandea eta Euskal Autonomia Erkidegoko edo Urduñako udalerriko jaieguna bada, hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Edonola ere, Urduñako Udaleko Kontratugilearen Profilean ere argitaratuko da lizitazioa ([www.urduna.com](http://www.urduna.com)).

### **11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta isilekotasuna.**

Kontratazio-organoak berdintasunezko eta ez-bereizkeriazko tratua emango die lizitatzailerei, eta haien jarduketa gardentasunaren printzipioaren arabera izango da.

SPKLTBn bertan esleipenaren publizitateari eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruz xedatutakoari inolako kalterik egin gabe, kontratazio-organoek ezin izango dute enpresariak emandako eta isilpekotzat jotako informazioa zabaldu. Izaera horrek, hain zuzen ere, sekretu tekniko edo komertzialetan eta eskaintzetako isilpeko faktoreetan izango du eragina, batez ere. Kontratazio-organoek ezin izango dute informazio hori zabaldu haien baimenik ez badute.

### **12. Proposamenen eta eskatutako agirien aurkezpena.**

#### **I. Arau orokorrak.**

Aurrerago zehazten den moduan, pertsona fisiko edo juridiko espainiarrek edo atzerritarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, betiere, jarduteko erabateko gaitasunik badute, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala edo, hala badagokio, sailkapena dutela egiaztatzen badute, euren estatutu edo sorrera-arauen arabera euren xedeak kontratuaren helburuarekin zerikusi zuzenik badauka, hori berori behar bezala egiaztatzen badute eta euren erakundeak behar besteko elementu pertsonal eta materialak badauzka kontratua behar den moduan betearazteko.

Kontratazio honetako zehaztapen teknikoan prestaketan parte hartu zuten enpresak ezin izango dira lizitaziora aurkeztu, partaidetza horren ondorioz konkurrentzia askea mugatzen denean edo gainerako enpresa lizitzaileen aldean tratu pribilegiatua eduki dezaketenean.

Obren eta instalazioen betearazpena zaintzea, ikuskatzea, kontrolatzea eta zuzentzea helburu duten kontratuak ezin izango zaizkie obretako kontratu horietako esleipendunak diren enpresei esleitu, ezta SPKLTBko 56.2. artikuluan azaldutako zentzuan haiekin lotunea daukaten enpresei ere.

Proposamenak aurkeztean, lizitatuko duenak jakintzat emango du orri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartu beharko dituela, baita bere karatulako zehaztapenak eta kontratuzko gainerako agiriak ere, inolako salbuespenik gabe. Gainera, erantzukizunpeko adierazpena ere egin beharko du aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela azaltzeko.

Lizitzaileek proposamen bana aurkeztu ahal izango dute gehienez ere, banan-banan nahiz aldi baterako enpresa-elkarte bateko baino gehiagoko kide moduan. Horrez gain, banan-banan lizitatzen duenak ezin izango du inolako proposamenik aurkeztu beste batzuekin aldi baterako egindako enpresa-elkartearen bidez. Arau horiek bete ezean, ez da sinatutako inolako eskabiderik eta eskaintzarik onartuko.

#### **II. Lizitzaileekiko komunikazioak.**

Udalaren eta lizitzaileen arteko komunikazioak azken horiek proposamenean adierazitako posta elektronikoaren bidez egin ahal izango dira. Nolanahi ere, egintzen publizitatea ere egin ahal izango da, legearen arabera bidezkoa denean.

### **III. Proposamenen aurkezpena: aurkezteko lekua eta modua.**

Proposamenak Urduñako Udaleko Erregistroan aurkeztu (Kale Zaharra 2-4, 48460 Urduña) edo postaz bidali ahal izango dira lizitazioaren iragarkian adierazitako onarpen-eparearen barruan.

Proposamena postaz bidaliz gero, Correoseko bulegoan bidalketa noiz ezarri den justifikatu eta Urduñako Udaleko kontratazio-organoari proposamenak aurkezteko zehaztutako epean telefaxeaz, telegramaz eta, abian egonez gero, posta elektronikoz iragarri beharko zaio eskaintza bidali dela.

Posta elektronikoz egindako iragarkia baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa izango da komunikazioen bidalketa eta jasoketa, datak eta eduki osoa zein diren adieraztea eta igorlea zein hartzailera nor diren sinesgarritasunez identifikatzea. Halakoetan, inprimatutako kopia lortu eta erregistratu eta espedientean erantsiko da.

Bi eskakizunok betetzen ez badira, agiriak ez dira inolaz ere onartuko adierazitako epea amaitzen deneko egunaren eta orduaren ostean jasotzen badira.

Edonola ere, adierazitako egunetik hasita hamar egun natural igarotakoan proposamena jaso ez bada, ez da inondik inora onartuko.

Proposamenek orri honetako karatulan zehaztutako gutun-azalak izango dituzte. Identifikatu ahal izateko, gutun-azalen aurrealdean ondo irakurtzeko moduan jarriko dira lizitatzaillearen izen-abizenak edo, hala badagokio, sozietatearen izena. Gainera, lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren sinadura eraman beharko dute ezinbestean, eta lizitatzaillearen beraren edo ordezkariaren sinadura den ere adierazi beharko da.

Identifikazioari begira ere, zer lizitaziotan parte hartuko den ere jarri beharko da gutun-azal bakoitzaren aurreko aldean.

Gutun-azal bakoitzaren barruan, ondoren adierazitako agiriak sartu beharko dira, baita haien edukia zein den azaltzen duen aparteko orria ere.

Agiriok fotokopien bidez aurkeztu ahal izango dira, originalak izan beharko diren erantzukizunpeko adierazpenak izan ezik. Esleipendun moduan proposatutakoak, ordea, agiri originalak aurkeztu beharko ditu, Kontrataziorako Udal Bulegoak erkatu ditzan.

A GUTUN-AZALA: AGIRI ADMINISTRATIBOAK EDO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

B GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK

C GUTUN-AZALA: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

### **IV. Eskatutako agiriak.**

#### **“A” GUTUN-AZALA: AGIRI ADMINISTRATIBOAK EDO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Hurrengo idatz-zatietan zehaztutako eta hasiera batean aurkeztu beharreko agiri administratiboen ordezkari erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du lizitatzailleak, eta legearen arabera administrazioarekin kontratatzeko zehaztutako baldintzak betetzen dituela adierazi beharko du bertan. Halakoetan, kontratua bera esleitu baino lehen, esleipen-proposamena erdiesten duen lizitatzailleak kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du eskatutako agiriak dituela eta baliozkoak direla.

Orri honetako karatulan bertan azalduko da hurrengo idatz-zatietan zehaztutako agiri administratiboak hasiera batean aurkeztu behar diren edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea nahikoa izango den (lizitazio bakoitzean zehaztutako ereduaren arabera).

Honako agiri hauek erantsi beharko dira erantzukizunpeko adierazpenean:

- 1- Enpresarien elkartearen erantzukizunpeko adierazpena: ABEE ERATZEKO KONPROMISOAREN AGIRIA (orri honetan erantsitako ereduaren arabera). Bertan, honako hauek adierazi beharko dira: sinatzaileen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetzaren ehunekoa eta

kontratuak dirauen bitartean administrazioaren aurrean guztien erabateko ordezkariak edukiko duena.

- 2- Eskatutako kaudimena edo sailkapena beste erakunde batzuen baliabideen eta kaudimen edo sailkapenaren baldintzekin integratuz gero: bi erakundeek KAUDIMEN/SAILKAPENAREN INTEGRAZIOA AITORTZEKO sinatutako AGIRIA (orri honetan erantsitako ereduaren arabera).
- 3- Karatulan bertan, gaikuntza enpresarial edo profesionala eskatuz gero: gaikuntza enpresarial edo profesionalaren EGIAZTAGIRIA.

#### AGIRI ADMINISTRATIBOAK

*\*(19. klausulan aurreikusiz gero eta esleipenduna izateko proposatutako lizitatuak izanez gero aurkeztu beharrekoak).*

1.- Ondoren zehaztutako suposamenduen arabera, **jarduteko gaitasunaren** egiaztagiria:

a) Pertsona fisikoa: NAN edo proposamengileak aurkeztutako agiri sinesgarri baliokidea.

b) Pertsona juridikoa: eskritura edo eraketaren agiria, estatutuak edo sorrera-egintza. Bertan, bere jardura arautzen duten arauak zein diren azaldu beharko da. Gainera, behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan, nolako pertsona juridikoa diren kontuan hartuta.

Edonola ere, kontratuaren helburu diren prestazioak agertu beharko dira bere estatutuen edo sorrera-arauen arabera dauzkan xedeen, jomugen edo jardura-arloaren barruan.

c) Europar Batasuneko estatu kideetako nazionala/k den/diren enpresari ez-espainiarra/k: enpresariaren inskripzioa kasuan kasuko erregistroan, finkatuta daudeneko estatuko legeriaren arabera, edo ezarri beharreko xedapen erkideen inguruko erantzukizunpeko adierazpena edo adostasun-ziurtagiria. Halaber, enpresa horiek finkatuta daudeneko estatuko legeriaren arabera bertan kasuan kasuko zerbitzua emateko baimen berezia aurkeztu behar denean edo erakunde zehatz bateko kidea izan behar denean, eskakizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

d) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoak: kasuan kasuko estatuan dagoen Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren helbideko lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostena. Era berean, enpresa atzerriarraren jatorrizko estatuak enpresa espainiarrek bertako administrazioarekiko kontratazioan antzeko baldintzetan parte hartzea onartzen duela adierazten duen agiria ere aurkeztu beharko dute.

Arauketa harmonizatupeko kontratuetan, ez da elkarrekikotasunari buruzko txostenik aurkeztu beharko, Munduko Merkataritza Antolakundeko Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez.

2.- **Ordezkaritzaren** egiaztagiriak. Beste baten izenean agertu edo proposamena sinatzen dutenek horretarako ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute. Lizitatuak pertsona juridikoa izanez gero, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da. Egintza zehatzerako ahalordea bada, ez da Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko, Merkataritza Erregistroari buruzko Araudiko 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, ordezkariari begira ahalorde askietsia daukanak bere nortasun-agiri nazionalaren edo agiri baliokidearen kopia aurkeztu beharko du, notarioak edo administrazioak erkatuta.

3.- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debekuren baten eraginpean ez daudela azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena (orri honetan erantsitako ereduaren arabera).

Adierazpen horretan, azaldu ere egin beharko dute egunean daudela indarreko xedapenen arabera zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan ezarritako betebeharren betearazpenean. Hala ere, esleipenaren aurretik, eskakizun horren egiaztagiria aurkeztu beharko du esleipena lortuko duen enpresariak.

4.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoari edo profesionalari buruzko egiaztagiria (eranskineko ereduaren arabera).

Sailkapena beharrezkoa ez bada, orri honetako karatulan eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional eta teknikoari buruzko justifikazioa aurkeztu beharko da, eta, hori egiaztatzeko, bertan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira.

5.- Enpresarien aldi baterako elkarteak: esleitu aurretiko fasean, aldi baterako elkartearen administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, enpresari guztiek aurretiaz eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita honako hauxe adierazten duen konpromisoaren idazkia ere: elkarteko eratzailen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza eta, esleipendun aukeratuak izanez gero, modu formalean eratzeko konpromisoaren onarpena. Elkartearen osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dute agiri hori.

Enpresarien aldi baterako elkarteetan, haien kaudimena zehazteko orduan, bertako kide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira, SPKLTBko 67.5. artikuluan eta APKLAOk 52. artikuluan sailkapenerako xedatzen denari inolako kalterik egin gabe.

Kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleitzuz gero, elkarteak eskritura publikoaren bidez eratuta dagoela egiaztatu eta elkarte horri emandako IFK zein den adierazi beharko du kontratua sinatu baino lehen. Dena dela, elkartearen eta kontratuaren iraupena berbera izango da harik eta amaitu arte.

6.- Kontratua Espainian betearazten bada, enpresa atzerritarrek behar besteko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein ordenatutako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioari men egiteko eta, hala badagokio, lizitatzailari egokitu dakioken jurisdikzio-foru atzerritarari uko egiteko.

7.- Hala badagokio, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea ere eman beharko dute.

8.- Behin-behineko bermea. Orri honetako karatulan behin-behineko bermea eratu beharra dagoela adierazten bada, karatulan zehaztutako zenbatekoa duen bermea eratu dela egiaztatzeko ordezkaria aurkeztu beharko da.

Lizitatzailen Erregistroko ZIURTAGIRIAREN bidezko egiaztapena.-

Orri honetako 1., 2., 4. eta 5. idatz-zatietan azaldutako inguruabarrak egiaztatzeko orduan (jarduteko gaitasunaren, ordezkariaren eta kaudimenaren egiaztagiria), honako edozein erregistrok egindako ZIURTAGIRIA ere aurkeztu ahal izango da egiaztagiri horien ordezkariak:

- a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala
- b) Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala (hala badagokio)
- c) Sailkapenari buruzko ziurtagiri erkidea

Kasuan kasuko erregistroak egindako ziurtagirian azaltzen ez diren inguruabarrei dagokienez, eskatutako egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Nolanahi ere, ziurtagiria ez ezik, lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, kasuan kasuko ziurtagirian zehaztutako inguruabarrak aldatu ez direla azaltzeko.

#### **“B” GUTUN-AZALA: FORMULEN, ZENBAKIEN EDO EHUNEKOEN BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK**

Lizitatzailak behar besteko agiriak aurkeztu beharko dituzte, haien eskaintzak orri honetako karatulan zehaztutako formulen, zenbakien edo ehunekoen bidez kuantifikatu ezin diren balioespen-irizpideen arabera balioetsi eta haztatu daitezkeen.

Gutun-azal honetan, ez da inolaz ere honako hauxe sartuko: eskaintza ekonomikoa, eskaintza ekonomikoari buruzko agiriak eta formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzko faktoreen agiriak.

### **“C” GUTUN-AZALA: FORMULEN, ZENBAKIEN EDO EHUNEKOEN BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO AGIRIAK**

Honako agiri hauek sartu beharko dira bertan:

1. Eskaintza ekonomikoa: Klausula Administratibo Partikularren Orriko eranskineko ereduaren arabera proposamen ekonomikoa:

- Makinaz idatzitako eta lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen bakarra sartuko da barruan, eta orri honetan erantsitako ereduaren arabera idatziko da.
- Eskaintza ekonomikoan, aparteko kontu-sail moduan agertuko da jasanarazi beharreko BEZa.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezin izango du kontratua lizitzeko aurrekontua gainditu.
- Ondorio guztietarako, eskaintako prezioan kontzeptu guztiak kontuan hartu direla ulertuko da, baita gastuak, edozein zerga-esparrutako tasak zein arielak eta kontratistaren mozkin industrialak ere, aparteko kontu-sail moduan jasanaraziko den BEZa IZAN EZIK.
- Karatulan halaxe aurreikusiz gero, proposamen ekonomikoaren ereduko eranskinak sartuko dira gutun-azal honetan.
- Ez dira honelako proposamenak onartuko:
  - Eskaintza bera kontuan hartzeko orduan administrazioak funtsezkotzat jotzen duena zer den argi-argi ikusten uzten ez duten kontraesanak, hutsegiteak, akatsak edo marradurak dituzten proposamenak.
  - Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen proposamenak.
  - Lizitaziorako gehieneko tasa gainditzen duten proposamenak.
  - Proposamenaren zenbatekoan ageriko akatsa duten proposamenak.
  - Orri honetako I. eranskinean zehaztutako proposamen-eredua nabarmen aldatu duten proposamenak.
  - Proposamenean bertan, lizitatzailleak akastuna edo hutsala izateagatik bideraezina dela aitortzen duenean.

Letretan adierazitako eskaintza eta zenbakietan adierazitako eskaintza bat ez badatoz, letretan adierazitakoa lehenetsiko da (betiere, zenbateko hori bakarrik bada lizitzeko tasa gainditzen duena), betiere, agiriaren azterketaren ondorioz sortutako zentzuzko irizpideen bitartez kontratazio-mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu.

Jakinarazi egiten da eskaintza ekonomikoa zuzendu beharko dela bertan kontu-akatsik badago.

Kontraesanak edo akatsak eskaintzak ez gaitzesteko modukoak badira, kontratazio-mahaiak zentzuzko irizpideen arabera hartuko du bere jarrera, administrazioarentzat zer den abantailatsua kontuan hartuta.

- Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Hala ere, karatulan halaxe baimenduz gero, baimendu beste irtenbide desberdin aurkeztu ahal izango ditu; eta, horren ondorioz, eskaintza ekonomiko desberdinak.

2. Orriko karatulan zehaztutako agiriak eta formulen, zenbakien edo ehuneko bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak balioesteko beharrezkoak direnak.

Lizitatzailleek behar besteko agiriak aurkeztu beharko dituzte, euren eskaintzak orri honetako karatulan zehaztutako formulen, zenbakien edo ehuneko bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera balioetsi eta haztatu ahal izateko.

AGIRIEN AURKEZPENARI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK



*PAPEREAN EDO EUSKARRI INFORMATIKOAN DAUDEN ESKAINTZETAN kontraesanik badago, paperean adierazitakoa lehenetsiko da, betiere, agirien azterketaren ondorioz sortutako zentzuzko irizpideen bitartez kontratazio-mahaiak beste jarrera bat hartzen ez bada.*

#### **AGIRIEN EGIASKOTASUNA**

*Esleitu baino lehen eta ondoren eta kontratuak dirauen bitartean, administrazioak gutun-azaletan sartutako agirien edukia egiazkoa den egiaztatu ahal izango du, baita karatulan bertan esleipenerako irizpide moduan adierazitakoen edukia ere. Beraz, enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, kontratua ezeztatu ahal izango da kontratistari egotzi ahal zaion ez-betearazpenagatik, eta eratutako behin betiko bermea galdu ahal izango da. Bestela, hala badagokio, bermearen kalte-ordain baliokidea ere eskatu ahal izango da bermerik eratu ez bada edo haren eraketa beharrezkoa ez bada. Horrez gain, administrazioari berari ere eragindako kalte-galerak ordaindu beharko zaizkio konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.*

#### **AGIRIEN ITZULKETA**

*Errekurtsoak aurkezteko epeak agortutakoan errekurtsorik aurkeztu ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak interesdunen esku geratuko dira. Nolanahi ere, esleipena egin zenetik hiru hileko epea igaro denean, administrazioak lizitatzailleak aurkeztutako agiriak suntsitzeko erabakia hartu ahal izango du, lizitatzailleak bila joan ez direnean.*

#### **13. Enpresa lizitatzaillearen oinordetza prozeduran.**

*Prozedura izapidetu bitartean eta esleitu aurretik, enpresa lizitatzaillearen edo izangaiaren nortasun juridikoa bat egiteagatik, zatitzeagatik edo enpresa-ondarea eskualdatzeagatik azkenduko balitz, prozedurako posizioan sozietate xurgatzaileak, bat egindakoa sortutako sozietateak, zatiketako onuradunak edo ondarearen edo kasuan kasuko jarduera-adarraren erosleak izango dira haren oinordekoak, betiere, gaitasun-baldintzak betetzen badituzte, kontratatzeke debekurik ez badute eta euren kaudimena egiaztatzen badute, klausula administratibo partikularren orri honetan esleipenerako prozeduran parte hartzeko eskatutako baldintzak kontuan hartuta.*

### **III. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA KONTRATAZIO-MAHAIAREN JARDUKETA**

#### **14. Kontratazio-mahaia.**

*Eskaintzak balioesteko organo eskuduna kontratazio-mahaia izango da, eta, SPKLTBko bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, honako hauexek eratuko dute: presidentea, hiru bokal gutxienez eta idazkaria.*

*Kontratazio-mahaiaren jardueraren araubidea SPKLTBn eta horren garapenerako xedapenetan araututakoa izango da.*

*Hementxe egingo dira "B" ETA "C" GUTUN-AZALAK irekitzeko jendaurreko ekitaldiak:*

*Lekua: Urduñako udaletxeko osoko bilkuren aretoa*

*Foru plaza 1, 1. solairua*

*48460 Urduña*

#### **15. Proposamenen azterketa eta esleipen-proposamena.**

*a) Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak jendaurrekoa ez den saioan irekiko du A gutun-azala, "agiri administratiboak", eta lizitatzaillearen eta garaiz zein behar bezala aurkeztutako proposamenen zerrenda emango da jakitera.*

*Mahaiak berak aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akats materialak edo hutsegiteak daudela antzemango balu, interesdunei jakinarazi eta hiru lagunetik gorakoa ez den epea emango lieke akatsak zuzentzeko.*

Era berean, kontratazio-mahaiak aurkeztutako ziurtagiri eta agiriei buruzko argibideak emateko edota beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaillei. Horretarako, bost laneguneko epea emango die.

Akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko, argibideak emateko edota agiri osagarriak aurkeztean kontratazio-mahaiak hartutako erabakiak bete ahal izateko, kasuan kasuko jakinarazpena egingo da, eta, ahal dela, posta elektronikoz edo interesdunak edo interesdunek jaso egin dutela jakiteko aukera ematen duen beste edozein sistemaren bitartez jakinarazi beharko da.

Kontratazio-mahaiak eskatutako agiriak garaiz eta behar bezala aurkeztu ezean, mahaiak berak proposamena gaitzetsi ahal izango du, eta, horren ondorioz, lizitatzeko prozeduratik kanpo utzi ahal izango du.

Era berean, lizitatzaileraren baten adierazpenean zuzendu ezin daitezkeen akats nabariak edo hutsegite materialak badaude, ez da lizitazioa onartuko.

b) Aurkeztutako agiriak kalifikatutakoan eta, beharrezkoak izanez gero, aurrean adierazitako jarduketak egindakoan, kontratazio-mahaiak berariaz jakinaraziko du zein izan diren onartutako lizitatzailleak, gaitzetsitako lizitatzailleak eta gaitzespenerako arrazoiak. Adierazitako ondorioetarako, mahaiak beharrezkotzat jotzen duen aholkularitza teknikoa jaso ahal izango du, eta, horretarako, behar besteko txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

c) Aurkeztutako proposamenetako A gutun-azaletan aurkeztutako agiriak irekitzeko eta kalifikatzeko ekitaldia amaitutakoan, mahaiak, egokia dela uste izanez gero, osteko berehalako ekitaldian erabaki ahal izango du mahaiak onartutako lizitatzaileren proposamenetako "B" GUTUN-AZALAK irekitzea: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK.

Eskaintzen kopuruaren edo aztertu beharreko datuen konplexutasunaren ondorioz, "agiri administratiboak" irekiera-ekitaldian bertan egiaztatu ezin badira, lizitatzaillei jendaurreko beste ekitaldi baterako deia egingo zaie, eta, bertan, "B" gutun-azalak irekiko dira. Horretarako, honelaxe jardungo da:

Bere ustez egokia bada, gutun-azalak irekitakoan kontratazio-mahaiak "B" GUTUN-AZALAK espedientea sustatu duen sailera bidaltzea erabaki ahal izango du, bertan aztertu ditzaten eta proposamenei buruzko txostena/k egin dezaten/ditzaten, formulen bidez kuantifikatu ezin diren esleipen-irizpideak kontuan hartuta.

Era berean, proposamenak balioesteko orduan, beharrezkotzat jotzen dituen beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu bere proposamena egin baino lehen. Edonola ere, SPKLTBko 150. artikuluan aipatutako Aduituen Batzordeak edo Organismo Tekniko Espezializatuak ere esku hartu ahal izango du, formulen aplikazioagatik modu automatikoan ebaluatu daitezkeen irizpideen ondorioz haztapena bera balio-judizioaren arabera kuantifikatutako irizpideei dagokiena baino txikiagoa denean. Hala badagokio, orri honetako karatulan agertutakoa izango da batzorde horren osaketa. Aduituen Batzorde horren ebaluazioa loteslea izango da kontratazio-mahaiarentzat, kontratua esleitzeko proposamena egiten duenean.

d) Formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko eskatutako txostena/k jasotakoan eta ezagututakoan, mahaiak eratu da, eta, jendaurreko ekitaldian, formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen inguruko eskaintzei esleitutako haztapenaren berri emango du.

Ebaluazio globalera onartuak izateko orduan SPKLTBko 150.4. artikulua araberako gutxieneko puntuazio-atalasea eskatu denean, lizitatzailleek gutxieneko puntuazio-atalasea lortu beharko dute. Hori dela eta, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko eta ez dute hautaketa-prozesuan jarraituko puntuazio-atalase hori lortzen ez duten eskaintzek.

Ondoren, onartutako proposamenen C GUTUN-AZALA irekiko da: FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

Presidenteak proposamen ekonomikoak irakurriko ditu, eta, orri honetako karatulan halaxe adierazi delako bidezkoa bada, mahaiak ezohiko baliorik edo neurrigabekorik dagoen egiaztatu beharko du lehendabizi. Halakoetan, SPKLTBko 152. artikuluan horretarako zehaztutako aurreikuspenen arabera jokatu du.

Bere ustez egokia bada, kontratazio-mahaiak "C" GUTUN-AZALAK espedientea sustatzen duen saileko txostenera/etara bidaltzea erabaki ahal izango du, proposamenak formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera aztertu ditzaten. Adierazitako ondorioetarako, mahaiak beharrezkotzat jotzen duen aholkularitza teknikoak jaso ahal izango du, eta, horretarako, behar besteko txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari, eskaintzen ebaluazio globala egindakoan.

Proposamenak formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera aztertzeke orduan, kontratazio-mahaiaren iritziz "C" GUTUN-AZALAK espedientea sustatzen duen sailera bidali behar ez badira, ekitaldi horretan bertan kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari, eskaintzen ebaluazio globala egindakoan.

Orri honetan azaldutako irizpideen arabera, aurkeztutako eskaintza bakar bat ere onartzerik ez badago, mahaiak lizitazioa esleitu gabe uztea proposatuko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-mahaiaren bileretako akta egin beharko da, eta ekitaldian dauden kontratazio-mahaiko presidenteak, idazkariak eta kide bokalek sinatu beharko dute.

Esleipen-proposamenaren ondorioz, ez da proposatutako lizitatzaillearen inolako eskubiderik sortuko administrazioaren aurrean.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak kontratua bera egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki hori zergatik hartu duen azaldu beharko du.

#### IV. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA ETA KONTRATUAREN GAUZAPENA

##### **18. Eskaintzen sailkapena.**

Kontratazio-organoak beheranzko ordenaren arabera sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, betiere, orri honetako karatulan adierazitakoaren arabera neurrigabetzat edo ezohikotzat hartu ez badira. Sailkapen hori egiteko, orrietan zehaztutako esleipen-irizpideak hartuko ditu kontuan, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Berdinketa haustea.- Proposamen bat baino gehiago abantailatsuak badira (bi hamarrenarenokoa berdinketa puntuazioan), orri honetako karatulan xedatutakoa ezarriko da kontratuaren esleipena lehenesteko orduan.

Esleitu gabe uztea.- Kontratazio-organoak ezin izango du lizitazioa esleitu gabe utzi, orrian aipatutako irizpideen arabera onargarria den proposamen edo eskaintzaren bat badago.

Uko egitea eta atzera egitea.- Nolanahi ere, SPKLTBko 155. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera, esleipena ebatzi baino lehen, administrazioak kontratua egiteari uko egin ahal izango dio interes publikoko arrazoiengatik, edo, bestela, atzera ere egin ahal izango du izapidetutako prozeduran, betiere, zuzendu ezin diren akatsak badaude. Bi kasuetan, lizitatzaillei ordaindu beharko dizkie lizitazioan parte hartzeagatik benetan izan dituzten gastuak, orri honetako karatulan zehaztutako muga kontuan hartuta.

##### **19. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Kontratazio-organoak proposamen ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzailleari eskatuko dio ondoren adierazitako agiriak aurkezteko, eta errekerimendua jaso osteko hurrengo egunetik hasita hamar (10) laguneko epea izango du horretarako.

Jakinarazi egiten da kontratatzeke orduan orri honetan eta legearen arabera eskatutako eskakizunen konkurrentzia antzemateko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaierakoa izango dela.

Epe horretan beharrezko agiriak aurkeztu ezean, prozeduratik kanpo geratuko da lizitatzaillea.

Agiriak:

a) Kontratatzeko orduan orri honetako 12. klausulan eta legearen arabera eskatutako eskakizunen egiaztagiri administratiboak, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu bada.

Eskatutako eskakizunen konkurrentzia antzemateko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaierakoa izango da.

b) Orri honetako karatulan eskatuz gero, administrazio kontratugilearen alde behin betiko bermea eratu dela egiaztatzen duen ordezkagiria.

- Zenbatekoa.- Orri honetako karatulako (BEHIN BETIKO BERMEA) atalean zehaztuko da.
- Bermea eratzeko moduak.- SPKLTBko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da bermea, eta abalen sinadura zilegi egin dadila eskatzeko eskubidea izango du administrazioak.  
Enpresarien aldi baterako elkarteak direnean, enpresa parte-hartzaileen izenak eta IFZak zein diren zehaztu beharko da. Halaber, enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte bermeak, betiere, guztira eskatutako zenbatekoa lortzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiei berme solidarioa eskaintzen badiete.
- Bermearen ondorioz sortutako erantzukizunak.- Eskatuz gero, SPKLTBko 100. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzungo die behin betiko bermeak.

Kontratua aldatzen denean bere prezioa ere aldatzen bada, bermea 15 egun naturaleko epean berregokitu beharko da, aldaketaren ondorioz sortutako kontratuaren prezioarekin behar bezalako proportzioa eduki dezan enpresariari egindako aldaketa jakinarazten zaionetik hasita. Epe berean, zehapenak edo kalte-ordainak gauzatzeko direneko epeetik hasita, esleipendunak bermea ordezkatu edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta, hala egiten ez badu, kontratua amaitu ahal izango da.

c) Foru-ogasunak/ek edota, hala badagokio, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziak egindako aldeko ziurtagiria, zerga-arloko betebeharren betearazpenean egunean dagoela adierazteko.

APKLri buruzko Araudi Orokorreko 13. artikuluan aipatutako zerga-arloko betebeharrei buruzko adierazpen edo agiri guztiak edo batzuk aurkeztu behar ez dituen lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez egiaztatu beharko du inguruabar hori.

Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez egiaztatu beharko du inguruabar hori.

Horrez gain, esleipendun moduan proposatutako enpresariak ez du nahitaezko ordainketa-epealdiko zerga-zorrik eduki beharko Urduñako Udalarekin. Tokiko administrazioak, ofizioz, eskura dituen datuen bidez egiaztatuko du betebehari hori betetzen dela.

d) Gizarte Segurantzaren arloko betebeharren betearazpenean egunean dagoela edo, hala badagokio, kasuan kasuko mutuan alta hartu duela egiaztatzeke egindako aldeko ziurtagiria.

e) Ekonomia Jardueren gaineko Zergako indarreko ekitaldiko alta edo azken ordainagiria eta, horren osagarri, zerga horretako matrikulan baja hartu ez duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena. Zerga hori salbuetsita edukiz gero, zerga horretako matrikulan baja hartu ez duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta salbuetsita dagoela adierazi beharko du bertan.

f) Esleipenduna enpresarien aldi baterako elkartea bada, elkartearen gauzapeanaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, ogasunaren/en eta Gizarte Segurantzaren arloko aldeko ziurtagiria ere aurkeztu beharko du elkarteko kide bakoitzak, baita Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko agiriak ere.

g) Hala badagokio, SPKLTBko 64. artikuluan arabera kontratuaren betearazpenerako eduki edo atxiki behar dituen eta kontratazio-organoak eskatzen dizkion baliabideak benetan dauzkala egiaztatzen duten agiriak.

Zuzentzea.- Aurkeztutako agirietan zuzendu daitekeen akatsik edo hutsegiterik badago, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaio interesdunari, eta hiru lanegunetik gorakoa ez den epea izango du akatsa zuzentzeko.

Ez betetzea.- Beharrezko agiriak epe horretan aurkezten ez badira, eskaintza erretiratu egin dela hartuko da kontuan, eta, horren ondorioz, prozeduratik kanpo geratuko da lizitatuzailea. Halakoetan, agiri berberak eskatuko zaizkio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzen sailkapen-hurrenkera kontuan hartuta.

Erantzukizunpeko adierazpena egitean faltsutuz gero, debekatuta egongo da administrazio honekin kontratatzea, SPKLTBko 60. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa kontuan hartuta.

## **20. Esleipena.**

Kontratazio-organoak agiriak jaso osteko hurrengo bost lagunetan esleitu beharko du kontratua. Kontratazio-organoak arrazoitutako ebazpenean ebatziko du esleipena.

Lizitatuzaileei jakinaraztea.- Lizitatuzaileei esleipenaren berri emango zaie, eta, jakinarazpenean bertan, behar besteko informazioa agertu beharko da, gaitzetsitako lizitatuzaileek esleipenari buruzko erabakiaren aurkako behar bezalako errekurtso arrazoitua aurkezteko aukera izan dezaten.

Hartuzaileak jaso egin duela jakiteko aukera ematen duen edozein sistemaren bidez egin ahal izango da jakinarazpena.

Ahal dela, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko da lizitatuzaileek proposamenak aurkeztean emandako helbidera.

Esleipenaren publizitatea egitea.- Esleipena jakinarazpenarekin batera argitaratuko da kontratugilearen profilean.

## **21. Kontratua burutzeko eta gauatzeko prozesua.**

Agiri administratiboan gauatzean burutuko da kontratua.

Kontratazio-organoaren egoitzaren kokalekuan egingo da kontratua.

Kontratua agiri administratiboan gauzatu beharko da, lizitazioko baldintzen arabera izan beharko da zehatz-mehatz eta agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Edonola ere, kontratistak kontratua eskritura publiko egiteko eskatu ahal izango du, eta horretarako gastuak bere konturakoak izango dira.

Kontratua gauatzeko agirian, ezin izango dira inolaz ere sartu esleipenaren baldintzak aldatzen dituzten klausulak.

- Kontratuari dagokionez, kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal izanez gero, ezin izango da gauzatu esleipenaren jakinarazpena lizitatuzaileei bidaltzen zaienetik hasi eta hamabost lanegun igaro baino lehen.

Epe hori igarotakoan kontratuaren gauzapena eteten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada edo, hala badagokio, errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etendura hori ezeztatu duenean, esleipendunak bost egunetik gorakoa ez den epean gauzatu beharko du kontratua, gauzapenerako errekerimendua jaso osteko hurrengo egunetik hasita.

- Kontratuari dagokionez, kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztu ezin bada, 135.4. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatuzaileei eta izangaiei esleipenari buruz bidalitako jakinarazpena jaso osteko hurrengo hamabost egunetan gauzatu beharko da kontratua.

Ezin izango da kontratua betearazten hasi aldeztu aurretik gauzatu ez bada, betiere, espedientea premiaz edo larrialdiren batengatik izapidetu behar ez bada.

## **24. Ez-gauzapenaren ondorioak.**

*Esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratua bera adierazitako epean gauzatu ez denean, kasuan-kasuan eskatutako behin-behineko bermearen zenbatekoaren behin betiko bermea konfiskatzea erabaki ahal izango du administrazioak.*

*Gauzatu ez izanaren arrazoiak administrazioari egozteko modukoak direnean, berandutzaren ondorioz sortu daitezkeen kalte-galerak ordainduko zaizkio kontratistari.*

## **25. Aseguruak.**

*Kontratua gauzatutakoan, esleipendunak honako agiri hau aurkeztu beharko du:*

*ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA, kontratistak erantzun zibileko poliza harpidetuta eta indarrean daukala egiaztatzeko.*

*Kontratuaren iraunaldian eta bermealdian, esleipendunak bere kontura kontratatu eta artatuko ditu honako aseguru-poliza hauek:*

***Erantzukizun zibileko aseguruan***, modalitate orokorrean edo ustiapenekoan, patronalean, eta amaitutako lanen modalitatean, kontratista eta, hala badagokio, azpikontratista hartuko dira aseguraturat. Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankizia eta ezbeharreko kalte-ordainaren gutxieneko muga orri honetako karatulan zehaztutakoak izango dira.

*Dena dela, kalte-galerak esleipendunaren konturakoak izango dira frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-polizetan zehaztutako mugak gainditzen dituen gutxian, baita bertan estali ez diren ondasun eta arriskueta ere.*

*Aurreikusitako data kontuan hartuta, kontratuaren amaieran atzeratzen bada, beharrezko luzapenak kontratatu beharko dira, eta gainsari hori esleipendunak berak ordaindu beharko du.*

## **26. Isilekotasuna.**

*Esleipenaren publizitateari eta izangaiei nahiz lizitatzailerei eman beharreko informazioari inolako kalterik egin gabe, SPKLTBko 140. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak ezin izango du zabaldu enpresek isilekotzat jotako informazioa.*

*Enpresa lizitatzailerek aurkeztutako agiriak eta datuak isilekotzat hartu ahal izango dira, hirugarrenei zabaltzea haien zilegizko interes komertzialen aurkakoa izan daitekeenean, sektoreko enpresen arteko lehia leialaren kalterako izan daitekeenean edo Norberaren Datuak Babesteko Legean xedatutakoaren arabera debekatuta dagoenean.*

*Kontratazio-organoak kontuan hartu dezan, beharrezkoa denean, enpresei eurei eskatuko zaie eskaintzako zer informazio eta agiri joko dituzten isilekotzat adierazteko.*

## **V. KONTRATUAREN BETEARAZPENEA**

### **27. Lanen hasiera.**

*Lanak hasiera-akta sinatu osteko hurrengo egunean hasiko dira; eta, halakorik gertatu ezean, kontratua gauzatu osteko hurrengo egunetik aurrera.*

*Premiazko espedienteetan, administrazioak hasteko idatziz emandako agindutik zenbatzen hasiko da betearazpen-epea; eta, halakorik gertatu ezean, esleipenari buruzko jakinarazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea eratu osteko hurrengo egunetik aurrera.*

### **28. Kontratuko arduraduna.**

*Kontratazio-organoak kontratuko arduraduna izendatu ahal izango du, kontratatutako prestazioaren betearazpena zuzentzeko eta ikuskatzeko. Horretarako, betearazpena gainbegiratu, behar besteko erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak zehaztuko ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko.*

*Kontratuko arduraduna eta bere laguntzaileak askatasunez sartu ahal izango dira kontratatutako prestazioa garatzen deneko lekuetara, kontratistak izendatutako pertsonaren laguntzaz.*

### **29. Kontratuaren betearazpena.**

*Kontratua kontratistaren arrisku eta ardurapean betearaziko da.*

*Kontratua betearaztean, honako hauxe kontuan hartu beharko da zehatz-mehatz: zehaztuen teknikoen orria, lan-programa eta orri honetan zein gainerako agirietan xedatutakoa, orri honetako karatulan adierazitakoaren arabera kontratuzkoak direnean, administrazioko ordezkariak enpresa kontratistari haien betearazpen edo interpretaziorako idatziz emandako jarraibideak kontuan hartuta.*

*Edozein baldintzatan hitzartutakoari dagokionez, enpresak osagai diren agiri erantsiak edo administrazioak onartutako edonolako arauak, orriak edo jarraibideak ezagutzen ez baditu ere, ez du esan nahi derrigorrean bete behar ez dituenik.*

*Kontratista garatzen dituen lanen eta egindako prestazio zein zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izango da, baita kontratua betearaztean gertatzen diren hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrengatik administrazioarentzat edo hirugarrenentzat sortutako ondorioena ere.*

### **30. Betearazpenerako baldintza bereziak.**

#### **- Enpresa kontratistetako gutxieneko lan-baldintzak**

*Kontratu honetan, ezinbestekoa izango da indarreko legezko, arauzko eta ohiko xedapenak eta lanaren zein laneko segurtasun eta osasunaren arloan ezarri beharrekoak betetzea.*

*Ez da inolako lan-harremanik egongo kontratua garatzeko aukeratutako langileen eta Urduñako Udalaren artean. Izan ere, langileok berriaz men egin beharko diote enpresa esleipendunak zuzendaritzaren eta antolakuntzaren arloan daukan botereari, legearen arabera zehaztutako edozein esparru eta ordenatan. Beraz, enpresa bera erantzule bakarra izango da, eta ezarri beharreko legezko xedapen guztiak bete beharko ditu derrigorrean, baina, batez ere, kontratazioaren, Gizarte Segurantzaren, arriskuen prebentzioaren, lanaren eta zergen arlokoak. Langile horiek ez dute inolako lotune juridiko eta lanekorik edukiko Urduñako Udalarekin, legearen edota kontratuaren arloan kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenak edonolakoak direla ere.*

*Kontratuaren helburu diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inolaz ere bateratu Urduñako Udaleko langile moduan.*

*Lizitazileek kontratuaren helburu den jarduera garatzen duten langileei zer hitzarmen kolektibo ezarriko zaien adierazi beharko dute, esleipendun hautatzen badituzte. Adierazpen hori kontratua esleitu baino lehen egin beharko da, esleipenari buruzko ebazpenean agertuko da eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.*

*Esleipendunak lan-baldintzei buruzko behar beste informazio eman beharko du, kontratua esleitutakoan langile horiei benetan ezarri dakizkien.*

*Kontratua betearazi bitartean, esleipendunak ezarri beharreko hitzarmen kolektiboan zehaztutako soldata ordaindu beharko du langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere hura baino txikiagoa izango.*

*Kontratua betearaziko duen pertsona kontratatzeke orduan, enpresak ezarri beharreko hitzarmen kolektiboan zehaztutako kategoria profesionala eta orrietan eskatutako gutxieneko kaudimen profesionala hartu beharko ditu kontuan.*

#### **- Lizitazio honetan langileak subrogatzeko baldintzak**

*Kontratazio honetan kontratuaren helburu den jarduera garatu ohi duten langile guztien lan-kontratuak subrogatu behar badira, ezarri beharreko hitzarmen kolektiboan aipatzen direnen artean subrogazio horretarako eskubidea ematen duen suposamenduren baten eraginpean daudelako, esleitutako kontratuaren helburu den prestazioa garatu ohi duen enpresako lan eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak eta eskubideetan subrogatuta geratuko da kontratista, eta langileen gutxieneko antzintasuna errespetatu beharko du, subrogatzeko betebeharrak sorrazten duen arauaren xedatzen den bezala.*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 120. artikuluan xedatutakoa ezartzeko asmoz, informazio hori Zehaztapen Teknikoen Orrian emango da, hala badagokio.

#### **- Hurrengo lizitazioetan langileak subrogatzeko baldintzak**

Langileak subrogatu behar badira, kontratuko enpresa esleipendunak udalari eman beharko dio subrogazioaren eraginpean dauden langileen kontratuen baldintzari buruzko beharrezko informazioa, hurrengo lizitazioan neurri horren ondorioz sortuko diren lan-kostuak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko.

Administrazioak eskatuta, enpresa esleipendunak udalari honako informazio hau eman beharko dio 15 eguneko epean, errekerimendu hori jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita:

- Ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa.
- Enpresaren ziurtagiria, kontratuaren helburu den jarduera garatu ohi duten langile guztien lan-kontratuak subrogatu behar diren adierazteko.
- Kontratuaren helburu den jarduera garatu ohi duten langile guztien lan-kontratuen zerrenda, haien ordainsari-ezaugarriak zein diren adierazita.
- Kontratua amaitzen denean, enpresa esleipendunak behar besteko ziurtagiria egin beharko du, Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko kotizazio guztiak eta zerbitzura atxikitako langileen soldata guztiak ordaindu dituela egiaztatzeko.

Horretarako zehaztutako epean enpresa esleipendunak udalari informazio hori ematen ez badio, kontratua betearazteko baldintza berezia bete ez dela hartuko da kontuan.

#### **31. Esleipendunaren betebeharrak.**

##### A) Enpresako lan-kontratupeko langileen inguruko betebeharrak:

1. Enpresa kontratista bera izango da langileak hautatzen dituen, eta, orri hauetan titulazioaren zein esperientziaren arloan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte, kontratuaren betearazpena atxikitako lan-taldeko kideak izango dira. Edonola ere, erakunde kontratugileak eskakizun horiek betetzen dituzten egiaztatu ahal izango du.

Enpresa kontratistak bermatu egin beharko du bere lan-taldea egonkorra dela, haren osaketako aldaketak unean unekoak direla eta arrazoi justifikatuengatik egiten direla, zerbitzua behar bezala garatu dadin. Horretarako, erakunde kontratugileari informazioa eman beharko dio une oro.

2. Enpresa kontratistak modu berezian ziurtatu beharko du kontratuaren betearazpena atxikitako langileek euren jarduera garatzen dutela orri hauetan kontratuaren helburu moduan zedarritutako jardueraren inguruan garatutako eginkizunen muga gainditu gabe.

3. Kontratazioaren helburu den zerbitzuan eragina duen lan-greba eginez gero, kontratazio-organoak eskatuta eta organo horrek adierazitako epean nahiz moduan, esleipendunak behar besteko irtenbideak eskaini beharko ditu, administrazio eskudunak zehaztutako ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak bermatzeko. Esleipendunak irtenbide horiek eskaintzen ez baditu edo abian jartzen ez baditu, kontratuko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontratuak sustatu ahal izango ditu onartutako gutxieneko zerbitzuak estaltzeko, esleipendunaren konturakoak izango dira-eta. Beraz, bere fakturaziotik kenduko da kontratu horien zenbatekoa. Hirugarrenei kontratatutako lan horien gaineko erantzukizuna, ordea, esleipendunarena izango da orri honetan zehaztutako ondorio guztietarako.

4. Enpresa kontratistak bere bulego edo instalazioetan betearazi beharko du kontratua, betiere, salbuespenez, bere zerbitzugintza sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateetako bulegoetan eskaintzeko baimenik ez badu. Halakoetan, enpresa kontratistako langileek enplegatu publikoek ez beste lan-eremu batzuetan lan egingo dute. Era berean, enpresa kontratistaren ardura ere izango da betebeharrak hori bete egiten dela bermatzea. Orriko ezaugarrien taulan, arrazoitu egin beharko da kontratuaren betearazpenari begira zergatik eskaini behar diren zerbitzuak administrazioko bulegoetan.



5. Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko bat edo arduradun integratu bat izendatu beharko du bere langile-taldean, eta honako betebeharrak izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratistako langileek administrazioari kontratuaren betearazpenaren inguruan egin beharreko edozein komunikazio jasotzea eta igortzea.

b) Lana kontratua betearazten duten langileen artean banatzea eta langile horiei lanerako behar besteko jarraibideak edo aginduak ematea, kontratatutako zerbitzugintzari begira.

c) Lan-taldeko langileek esleitura dituzten eginkizunak behar bezala garatzen dituztela ikuskatzea eta langileak lanera doazela kontrolatzea.

d) Kontratuaren betearazpena atxikitako langileen oporren araubidea antolatzea eta, horretarako, enpresa kontratista eta erakunde kontratugilea behar bezala koordinatzea, zerbitzuaren jardura egokiari eusteko.

e) Erakunde kontratugileari kontratuaren betearazpena atxikitako lan-taldearen osaketan noizbehinka edo betiko egindako aldaketan berri ematea.

#### B) Baliabide material eta pertsonalak.-

Zerbitzua edo prestazioa kontratuan hitzartutako epeetan behar bezala garatzeko beharrezkoak diren baliabide osagarriak zein taldea eduki eta mantendu beharko ditu kontratistak, baina, batez ere, kontratua betarazteko arduradunen zerrendan zehaztutakoak.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren menpe baino ez dira egongo, eta horrek baino ez ditu edukiko enplegatzaileen berezko eskubideak eta betebeharrak.

Halaber, enpresa kontratistak ezin izango ditu bere eskaintza zehaztutako langileak ordezkatu, administrazioaren berariazko baimenik ez badauka.

Administrazioak desagokizat jotzen duen edozein elementu gaitzetsi ahal izango du, eta enpresak ebazpen hori erreklamatzeko behar besteko eskubidea izango du administrazioaren aurrean, administrazioak idatziz egiten dion jakinarazpenetik hasi eta hamar eguneko epean.

#### C) Betearazpenerako hizkuntza-baldintzak.-

- EUSKARA: kontratu honetan, Euskadiko Autonomia Estatutuko 6. artikuluan zehaztutako eta Euskararen Erabilera Normalizazioari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen lege hori garatzen duen arautegiaren bidez araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete beharko da. Hori dela eta, kontratuko enpresa esleipendunak eta ustezko azpikontratistek bi hizkuntzen, hau da, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna hartu beharko dute kontuan. Beraz, elebitasunaren irizpideak ezarri beharko dituzte euren jardura garatzen dutenean, eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu beharko dituzte.

Kontratuaren helburuaren emaitza (azterketak, txostenak, proiektuak....) bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, betiere:

- Emaitza oso-osorik edo zati batez herritarren artean zabaltzen bada.

- Kontratuaren helburuko hartzailak umeak edo gazteak badira.

Kontratuaren helburu den emaitza egiteko orduan herritarrekin harreman zuzena duten jarduerak garatu behar badira, herritarrek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabili beharko da, eta bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharko da harreman horren oinarritzat hartutako euskarri edo jardura guztietan (inkestak, galde-sortak, eztabaida-taldeak...). Horretarako, kontratistak edo azpikontratistak eginkizun horiek euskaraz garatzeko gaitasuna duten langileen kopuru egokia eduki beharko du herritarrekin harreman zuzena daukaten eginkizun horiek garatzeko orduan.

Era berean, gaztelania eta euskara erabateko berdintasunaz erabili beharko dira kontratuaren helburu den jarduerarekin lotutako jendaurreko agerraldietan.

Kontratuetan, herritarrei zerbitzuak eskaini behar zaizkienean, kontratistak euskara eta gaztelania erabili beharko ditu errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabilera-jarraibideetan, ekoizten dituen produktuen etiketetan nahiz bilgarrietan eta zerbitzugintzaren ondorioz sortutako agirietan.

- HIZKUNTZA INKLUSIBOA: bere komunikazioetan, enpresa esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabiliko du, Udaleko Berdintasun, Lankidetzaz, Elkarbizitza eta Jailetako Sailak zentzu horretan zehaztutako irizpideak kontuan hartuta.

### **32. Kontratistari ez betearazteagatik ezarri beharreko zehapenak.**

#### **A) Lan akastunak edo txarto betearazitakoak.**

Karatulan zehaztutako bermealdia igaro arte, enpresa kontratistak erabateko erantzukizuna izango du kontratatutako lanak behar bezala egiteko orduan eta bertan egon litezkeen akatsak zuzentzeko orduan. Hala ere, ez da salbueslea izango, eta ez dio inolako eskubiderik emango, garatu bitartean administrazioko ordezkariak aztertu edo aitortu edo egiaztapen, balioespen edo ziurtagiri partzialetan onartu baditu ere.

Enpresa kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango, lan akastuna edo txarto betearazitako lana administrazioak emandako aginduaren berehalako ondorio zuzena izan denean.

Kontratistak kontratuaren helburu diren prestazioak oso-osorik edo zati batez betetzen ez baditu edo behar den moduan betetzen ez baditu, administrazioak kontratua suntsiarazi edo kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zehapenak ezarri ahal izango ditu.

Zehapen horietatik aparte, kontratistak udalari ordaindu beharko dizkio bere prestazioak ez betetzeagatik sorrarazi dizkion kalte-ordainak.

Edonola ere, zehapenak ezarrita ere, kontratistak legearen arabera akatsak konpontzeko daukan betebeharra bete beharko du ezinbestean.

#### **B) Epearen betearazpena eta berandutzagatiko zehapenak.**

Kontratistak kontratua bete beharko du kontratuzko agirian horren garapenerako guztira zehaztutako epean. Era berean, segidako betearazpenerako adierazitako epe partzialak ere hartu beharko ditu kontuan.

Kontratista berandutzan eratzen bada, ez du administrazio honen aurretiazko intimaziorik beharko.

Betearazpena atzeratzen bada, bi suposamendu bereizi beharko dira:

a) Bere erruz, kontratista guztira zehaztutako epearen edo epe partzialen betearazpenean atzeratu bada eta, berandutza horren ondorioz, zentzuz guztira zehaztutako epea betetzea ezinezkoa bada, administrazioak bereizgabe erabaki ahal izango du kontratua suntsiaraztea edo eguneko zehapenak ezartzea kontratuaren prezioa 1.000 euroko 0,20 euroko proportzioan, betiere, orri honetako karatulan beste zehapen batzuk xedatu ez badira.

Zehapenak kontratistari ordainketa oso edo partzial moduan ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduko dira edo, hala badagokio, bere garaian eratu den bermetik, ordainketatik kendu ezin direnean.

Berandutzagatiko zehapenak kontratuaren prezioaren %5eko multiplora iristen direnean, kontratazio-organoak behar besteko ahalmena izango du, kontratua suntsiarazteko edo betearazten jarraitzea eta beste zehapen batzuk ezartzea erabakitzeko.

Nahiz eta zehapen horiek ezarri eta ordaindu, kontratistaren erruz gertatutako atzerapenaren ondorioz sortutako kalte-galerengatiko ordaina jasotzeko eskubidea ere izango du administrazioak.

b) Berandutza kontratistaren erruz gertatzen ez bada eta, eman zitzaion epealdia luzatuta, kontratistak bere konpromisoak betetzea eskaintzen badu, administrazioak galdutako epealdia bestekoa den epea emango dio gutxienez, betiere, kontratistak epe laburragoa eskatzen ez badu.

### **C) Betearazpenerako baldintza bereziak ez betetzea.**

Betearazpenerako baldintza bereziak bete ezean, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zehapena ezarri edo kontratua bera suntsiarazi ahal izango du.

### **E) Kaudimenerako konpromisoak ez betetzea.**

Kontratistak bere eskaintzan zehaztutako baliabide materialak edo pertsonalak atxikitzeke betebeharra bete ezean, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10erainoko zehapena ezarri ahal izango du.

### **F) Azpikontratazko baldintzak ez betetzea.**

SPKLTBko 227.2. artikuluan azpikontrataziorako aurreikusitako baldintzak edo orri hauetan azpikontrataziorako zehaztu daitekeen gehieneko muga berezia ez betetzeagatik: azpikontratuaren zenbatekoaren %50eraino.

## **33. Abonuak.**

Hitzartutako prezioen arabera, kontratistak behar besteko eskubidea izango du, esleitutako kontratuaren eta administrazioak emandako jarraibideen arabera benetan ematen dituen zerbitzuengatik ordainketa jasotzeko.

Kontratuko ordainketen araubidea orri honetako karatulan kontratuaren helburu den prestazioa betearazten denerako xedatutakoa izango da, eta oso-osorik edo zatika ordaindu ahal izango da konturako abonuen bidez; edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, aurretiaz zehaztutako mugaegun bakoitzean egindako ordainketaren bitartez.

Kontratistak emandako zerbitzuengatik egin duen faktura aurkeztu beharko du kasuan kasuko erregistro administratiboan, kasuan kasuko organo administratiboari edo unitateari bidaltzeko eta bertan izapidetzeko. Horretarako, kontabilitate publikoaren arloko organo administratibo eskudunaren kontratazio-organismoaren eta hartzailearen identifikazioa agertu beharko da aurkeztutako faktura bakoitzean.

25/2013 Legearen arabera, hornitzaileek faktura elektronikoa egin eta bidali behar dutenean, Urduñako Udaleko hornitzaileen atariaren bidez aurkeztu beharko dute, formatu egituratuan eta aitortutako ziurtagirian oinarritutako sinadura elektronikoa aurreratuen bitartez sinatuta. Behartuta ez daudenean eta fakturen zenbatekoa 5.000 eurorainokoa denean, hornitzaileen atariaren bidez ere aurkeztu ahal izango dituzte edo udal honetako Sarreraren Erregistro Orokorren bidez. Fakturak azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte, eta, gutxienez, honako datu hauek azaldu beharko dira bertan: fakturaren zenbakia eta data, izen-abizenak edo sozietatearen izena, faktura egin behar duenaren zein hartzailearen IFZ, ondasun edo zerbitzuaren azalpena, zerga-tasa, zerga-kuota eta, hala badagokio, transferentzia egiteko bankuko kontuaren zenbakia.

a) Kontabilitate-bulegoa: kodea: L01480741

b) Organo kudeatzailea: L01480741

c) Unitate izapidegilea: L01480741

Abonuak konturako ordainketatzat hartuko dira, azken ziurtagirian gertatzen diren zuzenketen zein aldaketen eraginpean egongo dira eta, gauzatu arren, ez du esan nahi kontratua onetsi eta onartu egiten denik.

Kontratistak konturako abonua ere jaso ahal izango ditu kontratuaren betearazpena prestatzeko eragiketen zenbatekoagatik. Dena dela, bermea eratzeko eskatuko zaio abal moduan edo legearen arabera onartutako beste modu batean.

Bestetik, kontratistek eurek administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea dutenean, zuzenbidearen arabera laga ahal izango dute, eta, horretarako, ezinbesteko eskakizuna izango da administrazioari lagapenari buruzko erabakiaren berri sinesgarritasunez ematea.

Halaber, kontratuak dirauen bitartean, edozein unetan eskatu ahal izango zaio TC1 eta TC2 edo kontratuaren betearazpenaren kontrolerako beharrezkoa den beste edozein agiri aurkezteko.

Administrazioak behar besteko ahalmena izango du, soldatak eta Gizarte Segurantzako nahiz Ogasuneko kotizazioak ordaintzen ez direnean emandako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioetik zorpekoak ordaintzeko behar besteko zenbatekoa atxikitzeko.

#### **34. Prezioen berrikuspena.**

Prezioak orri honetako karatulan, kontratuzko agirian, hala badagokio, eta SPKLTBko 89. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera berrikusiko dira. Edonola ere, ez da berrikusiko ez betearazitakoaren lehenengo %20, ezta kontratua sinatzen denetik igarotako lehenengo urtea ere.

Kontratuan berrikuspenerako ezarri beharreko indizea edo formula aldagarria izango da indarrean dagoen bitartean, eta prezioen berrikuspena zehaztuko du data bakoitzean, kontratuaren esleipen-data kontuan hartuta.

#### **35. Kontratuaren aldaketa.**

1. Kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, halaxe aurreikusi denean edo, aurreikusi ez diren kasuetan, legean aurreikusitako inguruabarrak ematen direnean. Hau da:

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratua aldatu egin ahal izango da, karatulan bertan aukera hori aurreikusten bada eta aukera hori erabiltzeko baldintzak argi-argi, zehatz-mehatz eta ageri-agerian adierazten badira. Era berean, hitzartu daitezkeen aldaketen irismena eta mugak ere zehaztu beharko dira, eta berariaz adierazi beharko da kontratuaren prezioaren zenbateko ehunekotan eduki ahal izango duten eragina, SPKLTBko 106. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

B) Aurreikusi ez diren aldaketak:

Kontratuak SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan eta mugen arabera bakarrik aldatu ahal izango dira.

2. SPKLTBko 306. artikuluan xedatutakoaren arabera, artapenerako zerbitzuen kontratuko aldaketen ondorioz artatu beharreko ekipamenduak gehitu, murriztu edo kendu egiten badira edo ekipamendu batzuen ordeztu beste batzuk jartzen badira, betiere, kontratuan bertan kontuan hartzen badira, aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, eta, ekipamenduen unitateak edo motak kendu edo murriztu egiten direnean, ez du arrazoi horiengatik inolako kalte-ordaina erreklamatzeko eskubiderik izango.

3. Aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, kontratistari entzun ondoren hitzartuko dira eta, hala badagokio, behin betiko bermea egokitu osteko agiri administratiboan gauzatu beharko dira.

#### **36. Kontratuaren etendura.**

Administrazioak kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLTBko 216. artikuluan xedatutakoa ezartzeagatik eteten bada, akta egin beharko da, eta horretarako inguruabarrak zein izan diren eta haren betearazpenaren egitatezko egoera zein den azaldu beharko da bertan.

#### **37. Enpresa kontratistaren oinordetza kontratua betearazi bitartean.**

Enpresek bat egiten dutenean sozietate kontratistak bertan parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du sozietate xurgatzailearekin edo bat egindakoa sortutako sozietatearekin, eta subrogatuta geratuko da kontratuaren ondorioz sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan. Era berean, enpresak edo bertako jarduera-adarrak zatitu, ekarri edo eskualdatu egiten direnean, kontratuak bere horretan jarraituko du horren ondorioz sortutako sozietatearekin edo sozietate onuradunarekin, eta subrogatuta geratuko da kontratuaren ondorioz sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan, betiere, esleipena ebaztean eskatutako kaudimena badauka.

### **38. Esleipendunaren isilekotasun-betebeharra.**

Kontratua betearaztean enpresa kontratistak eskuratuko duen informazio guztia isilekoa izango da. Kontratistak eta kontratuaren betearazpenerako esleitu dituen langileek ezin izango dute eurentzat erabili eta hirugarrenei eman kontratatutako lanei buruzko edo betearazpenaren ondorioz eskuratu ahal izan duten inolako daturik edo informaziorik, administrazioaren baimen idatzirik ez badaukate. Beraz, eskura dituzten baliabide guztiak jarri beharko dituzte, informazioaren eta egindako lanaren ondorioz lortutako emaitzen isilekotasunari eusteko (SPKLTBko 140. artikulua). Dena dela, lanak egiteko orduan norberaren datuak tratatu behar ez direnean, enpresak eta bertako langileek ezin izango dituzte norberaren datuok eskuratu, eta, gainera, sekretupean gorde beharko dituzte langileek zerbitzugintzaren ondorioz ezagutu ahal izan dituzten datuak.

### **39. Norberaren datuen babesia.**

Kontratistak eta bere langileek dekretu profesionalpean gorde beharko dituzte zerbitzugintzaren ondorioz ezagutu ahal izan dituzten datu pertsonalak. Gainera, betebehar horrek bere horretan iraugo du zerbitzugintza amaitzen denean ere, Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak behar besteko prestakuntza eta informazioa eman beharko dizkie bere langileei, kontratuko prestazioak garatzeko orduan datuen babesari begira derrigorrean bete behar dituzten betebeharrak eta, batez ere, sekretu-eginbeharraren ondorioz sortutakoak zein diren jakin dezaten. Izan ere, enpresa esleipenduna bera izango da bere langileen ez-betearazpenagatik sortu daitezkeen lege-hausteen erantzule bakarra.

Kontratua betearazteko asmoz emandako zerbitzuak garatu bitartean, kontratistak eta bere langileek zorrotz-zorrotz bete beharko dituzte lana garatzen duteneko udal-bulegoetan segurtasunaren arloan dauden arauak eta protokoloak.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, nahi beste kontrol egiteko eskubidea izango du Urduñako Udalak. Horrela, segurtasunaren arloan ezarritako neurriak bete egiten direla egiaztatu eta, hala badagokio, behar den moduko neurri zuzentzaileak hartu ahal izango ditu.

Esleitutako kontratuaren ondorioz norberaren datuak tratatu behar badira, Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta horren garapenerako arautegia oso-osorik errespetatu beharko dira, SPKLTBko hogeita seigarren xedapen gehigarrian xedatu bezala.

### **40. Lanen jabetza.**

Kontratua betearazi bitartean egindako azterketa eta agiri guztiak udalaren jabetzakoak izango dira, eta oso-osorik edo zatika erreproduzitu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu. Hori dela eta, lanak egin dituen esleipendunak ezin izango du horren aurka jokatu.

Esleipendunak ezin izango ditu kontratua betearazi bitartean egindako azterketak eta agiriak inolaz ere erabili edo zabaldu, ez oso-osorik edo zatika, ezta zuzenean edo laburtuta ere, horretarako kontratazio-organoaren berariazko baimenik ez badauka.

Kontratuen helburua jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak babestutako produktuak garatzea eta eskaintzea bada, Urduñako Udalarri laga beharko zaio eskubide hori. Edonola ere, jabetza intelektualaren eskubideen lagapena salbuetsi arren, SPKLTBko 3.1. artikuluan aipatutako sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateei behar besteko baimena eman ahal izango zaie kasuan kasuko produktua erabiltzeko.

## **VI. KONTRATUAREN AMAIERA**

Betetzen denean edo halaxe ebazten denean amaituko da kontratua.

### **41. Kontratuaren betearazpena.**

Kontratistak kontratua beteko du, bertan zehaztutako baldintzen arabera eta administrazioaren gogobetetasunpean prestazioa oso-osorik garatu duenean.

### Onarpena.

Egiaztatu ahal izateko, administrazioak onarpenerako edo adostasunerako aldeko ekitaldi formala (onarpen-akta) egin beharko du kontratuaren helburua aurkeztu edo garatu osteko hurrengo hilabetean, betiere, orri honetako karatulan beste epe bat zehaztu ez bada.

Egindako lana kontratatutako prestazioarekin bat ez badator, enpresari behar besteko jarraibideak emango zaizkio idatziz, antzemandako hutsegiteak edo akatsak zuzentzeko. Idazki horretan, zuzenketarako epea zein den zehaztu beharko da.

Enpresa kontratistak ohar horiei buruzko erreklamaziorik aurkeztuz gero, kontratazio-organoa izango da ebazten duena.

Enpresak ohar horiei buruzko erreklamazio idatzirik aurkezten ez badu, ados dagoela hartuko da kontuan, eta antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu egin beharko ditu.

Onarpena lortzeko, ezinbestekoa izango da jarraibide horiek betetzea, eta hori gertatzen denean egingo da kasuan kasuko akta.

Zuzenketarako emandako epean inolako zuzenketarik egin ez bada, administrazioak onarpena gaitzetsiko du, eta ez du ordainketarik egin beharko, edo, hala badagokio, ordaindutako dirua berreskuratzeko eskubidea izango du.

Dena dela, administrazioaren errua ez den arrazoiren batengatik egindako lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, kontratazio-organoak onarpena gaitzetsi ahal izango du, eta ez du ordainketarik egin beharko, edo, hala badagokio, ordaindutako dirua berreskuratzeko eskubidea izango du.

Enpresa kontratistak kontratatutako prestazioaren betearazpenari buruz egiten diren oharrek ezagutu eta entzuteko eskubidea izango du.

### Kontratuaren likidazioa.

Onarpenaren edo adostasunaren akta egiten denetik hasita, hilabeteko epean, kontratuaren kasuan kasuko likidazioa hitzartu, kontratistari jakinarazi eta, hala badagokio, horren ondorioz sortutako saldoa ordaindu beharko zaio.

### **42. Bermealdiko akatsak eta hutsegiteak.**

Hala badagokio, karatulan bertan zehaztutako bermearen epea onarpenaren edo adostasunaren datatik hasiko da zenbatzen.

Bermealdian, egindako lanetan akatsak edo hutsegiteak daudela egiaztatuz gero, kontratazio-organoak behar besteko eskubidea izango du kontratistari zuzendu ditzala erreklamatzeko.

Kontratistak akats horiek kontratazio-organoak zehaztutako epean zuzentzen ez baditu, organo horrek Administrazio Publikoetako Prozedura Administratibo Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 100. artikuluan nahitaezko betearazpenerako adierazitako sistemak erabili ahal izango ditu.

Bermealdia amaitutakoan administrazioak aurreko idatz-zatietan aipatutako erreparo edo salaketaren bat egin ez badu, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango garatutako prestazioagatik. Nolanahi ere, SPKLTBko 310., 311. eta 312. artikuluetan obretako proiektuak egitea helburu duten kontratuetako akatsen zuzenketari eta erantzukizunari buruz xedatutakoa ezarri ahal izango da.

Kontratistak kontratatutako prestazioaren betearazpenari buruz egiten diren oharrek ezagutu eta entzuteko eskubidea izango du.

### **43. Bermeen itzulketa eta ezerezipena.**

Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta bermealdia mugaeguneratu eta kasuan kasuko kontratua behar bezala bete arte edo harik eta kontratua bera kontratistaren errurik gabe amaitu arte.

Kontratuaren likidazioa onartutakoan eta zehaztutako bermealdia igarotakoan inolako erantzukizunik ez badago, eratutako bermea itzuli edo abala edo kauzio-asegurua ezereztuko da.

Kontratuak lagatzen direnean, ez da lagatzaileak emandako bermea itzuli edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzailearena behar bezala eratuta egon arte.

#### **44. Kontratuaren amaiera.**

Betearazpenaren suposamenduetan ez ezik, orri honetako karatulan zehaztutako inguruabarrak edo hurrengoak gertatzen direnean amaitutzat emateagatik ere azkenduko da kontratua:

a) Banakako kontratista hiltzen denean edo ezindu geratzen denean edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoa azkentzen denean, SPKLTBko 85. artikuluan aurreikusitakoari inolako kalterik egin gabe.

b) Beste edozein prozeduratan konkurtsoa edo kaudimengabezia adierazten denean.

c) Administrazioak eta kontratistak elkarrekin erabakitzen dutenean.

d) Kontratista epeen betearazpenean atzeratzen denean eta SPKLTBko 112. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran adierazitako epea betetzen ez denean.

e) Administrazioaren erruz kontratuaren hasiera sei hilabetetik gorako epean eteten bada, hasteko zehaztutako datatik hasita.

f) Administrazioak halaxe hitzartzean, kontratuaren betearazpena urtebetetik gorako epean atzeratu edo eteten denean.

g) Administrazioaren ordainketa SPKLTBko 216. artikuluko 6. idatz-zatian zehaztutakoa baino epe luzeagoan edo bertako 8. idatz-zatiaren babespean zehaztutakoa baino epe laburragoan atzeratzen denean.

h) Orri honetan edo kontratuan funtsezkotzat jotako kontratuzko gainerako betebeharrak betetzen ez direnean.

i) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan garatu ezin denean edo, prestazioa bera garatzen jarraituz gero, interes publikorako lesio larria gertatzeko benetako aukera dagoenean, betiere, kontratua bera I. liburuko V. tituluaren xedatutakoaren arabera aldatzerik ez badago.

j) Kontratuan bertan berariaz zehaztutakoak jazotzen direnean.

k) 303.2. artikuluan aipatutako kontratu osagarriak kontratu nagusia amaitzen denean bukatuko dira, hala badagokio.

Amaierarako arrazoen ezarpenari eta haien ondorioei dagokienez, SPKLTBko 224., 225. eta 309. artikuluetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

#### **45. Kontratuaren lagapena eta azpikontratazioa.**

##### Kontratuaren lagapena.

Esleipendunak kontratuaren ondorioz sortutako eskubideak eta betebeharrak laga ahal izango dizkio hirugarren bati, betiere, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta SPKLTBko 226. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen badira.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari zegozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.

##### Azpikontratazioa.

Hala badagokio, orri honetako karatulan adieraziko da azpikontratazioaren arloko zer arau berezik arautuko duen kontratua.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren garapen partziala, betiere, kontratuan edo orri honetako karatulan aurkakoa adierazten ez bada edo, kasuan kasuko

ezaugarri eta baldintzen ondorioz, esleipendunak berak zuzenean betearazi behar duela erabakitzen ez bada.

Orri honetako karatulan inolako mugarik agertzen ez bada, kontratistak esleipenaren zenbatekoaren %60 baino handiagoa ez den ehunekoraino azpikontratatu ahal izango du.

Azpikontratuak egiten direnean, SPKLTBko 227. artikuluan zehaztutako arauak bete beharko dira.

## VII. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENA, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTASUN-ARAZOA

### **46. Administrazioaren eskumenak.**

Kontratazio-organoak kontratu administratiboak interpretatzeko eta betearazpenean sortutako zalantzak argitzeko eskumena izango du. Era berean, kontratuak interes publikoagatik aldatu, amaitutzat ematea erabaki eta amaiera horren ondorioak zein diren ere zehaztu ahal izango du, indarreko legerian aipatutako mugak, eskakizunak eta ondorioak kontuan hartuta.

Interpretatzeko, aldatzeko eta amaitutzat emateko eskumenak erabiltzen dituen kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiak berehala betearaziko dira.

### **47. Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia.**

Kontratuetan kontratazioaren arloko errekurtsio berezia aurkeztu daitekeenean, SPKLTBko 40. artikuluan aipatutako egintzetan errekurtsio administratibo berezia aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu baino lehen.

Errekurtsio administratibo berezia aukerakoa izango da, eta SPKLTBko 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zenbatutako 15 laguneko epean aurkeztu ahal izango da.

Errekurtsioaren idazkia kontratazio-organoko erregistroan edo errekurtsioa ebazteko organo eskudunean (Kontratuzko Errekurtsioen Organo Administratiboko Erregistroa, Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) aurkeztu beharko da ezinbestean.

Edonola ere, errekurtsioa aurkeztu nahi duen orok aurretiaz iragarri beharko du aurkezpenerako aurreikusitako epe berean. Horretarako, Urduñako Udaleko Erregistroan (Kale Zaharra 2-4, 48460 Urduña) aurkeztu beharko du idazkia, eta helburu den prozeduraren egintza zein den adierazi beharko du bertan.

Errekurtsioaren idazkian, honako hauxe azaldu beharko da: zer egintza errekurritu den, zer arrazoitan oinarritzen den errekurtsioa, errekurtsogileak zer frogabide erabiliko dituen eta, hala badagokio, SPKLTBko 43. artikuluan aurreikusitakoak bezalakoak izan behar direla kontuan hartuta, zer neurri ezarriko diren, haien ezarpena eskatuz gero.

Honako hauxe aurkeztu beharko da idazki horrekin batera:

a) Agertutako alderdiaren ordezkariaren egiaztagiria, betiere, organo horretan bertan ebatzi gabe dagoen beste errekurtsio bateko jarduketekin lotuta ez badago, halakoetan prozedurarekin lotzeko ziurtagiria egin dadila eskatu ahal izango delako.

b) Auzi-jartzailearen zilegitasunaren egiaztagiria edo egiaztagiriak, zilegitasun hori beste batek herentziaz edo beste edozein tituluren bidez eskualdatu diolako daukanean.

c) Errekurritutako berariazko egintzaren kopia edo trasladoa edo zer espedientetan dagoen edo zer egunkari ofizialetan edo kontratugile-profiletan argitaratu den adieraztea.

d) Eskubidearen oinarritzat hartutako agiria edo agiriak.

e) Errekurtsioa aurkeztuko dela alde aurretik iragarri dela azaltzen duen egiaztagiria.

### **48. Berraztertze errekurtsioa.**

Errekurtsio berezia aurkezteko aukerarik ematen ez duten kontratu administratiboak esleitzeko prozeduretan emandako egintzetan, berraztertze aukerako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita, honako hauexetan



xedatutakoaren arabera: Administrazio Publikoetako Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea.

#### **49. Deuseztasun-arazoa.**

SPKLTBko 37. artikuluan aurreikusitako suposamenduetan, kontratuaren deuseztasun-arazoa proposatu ahal izango da 30 laneguneko epean, honako une honetatik hasita (SPKLTBko 39. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera):

a) Kontratuaren esleipena 138.2. artikuluan aurreikusitako moduan argitaratzen denetik, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ez argitaratzea justifikatzen duten arrazoiak kontuan hartuta.

b) Lizitazile interesdunei haien izangaitza edo proposamena zergatik gaitzetsi den eta proposamena esleipendunaren alde esleitzeko orduan zer ezaugarri izan diren erabakigarriak jakinarazten zaienetik, 137. artikuluan komunikazioan aipatu ezin diren datuei buruz xedatutakoari inolako kalterik egin gabe.

Suposamendu horietatik kanpo, kontratua gauzatzen denetik hasita sei hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko da deuseztasun-arazoa.

#### **50. Jurisdikzio eskuduna.**

Kontratuen interpretazioari, aldaketari, amaierari eta ondorioei buruz sortutako zalantzak kontratazio-organo eskudunak argituko ditu, eta bere ebazpenek bide administrazioa agortuko dute.

Kontratuaren ondorioz sortutako auzietan, administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari men egin beharko zaio. Nolanahi ere, alderdiek euren auziak arbitrajepean ebazteko erabakia hartu ahal izango dute, indarreko legerian xedatutakoa kontuan hartuta.

Urduñan, 2016ko urriaren 31n.

EGINBIDEA: orri hau Udaltzako 2016ko xxxxxxaren xx(e)(a)n egindako ohiko bileran onartu dela agertu dadin.

Urduñan, 2016ko xxxxxxaren xx(e)(a)n

Idazkaria

Iz. Angel M<sup>a</sup> Marcos Robles jauna

#### **I. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.**

..... jaun/andreak,  
.....(e)ko ..... helbidea eta  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi:  
administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko  
..... helbidea, ..... PK,  
..... telefonoa, ..... faxa, ..... IFK eta,  
hala badagokio, lizitazio-prozesuko komunikazioak zein jakinarazpenak eta kontratazioko  
izapideak egiteko orduan .....@..... postontzi elektronikoa dituela kontuan  
hartuta,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

I. Badaki honako helburu hau daukan kontratuaren esleipena iragarri dela:

II. Era berean, Zehaztapen Teknikoen Orria, Klausula Administrazio Partikularren Orria eta kontratu honetan kontuan hartu beharreko gainerako agiriak ere ezagutzen ditu, berariaz hartzen ditu bere gain eta oso-osorik men egiten die.

III. Eskaintza honetako prestazioari dagokionez, eskainitako urteko prezioa ..... eurokoa izango da (letretan eta zenbakietan); eta BEZaren zenbatekoa, ..... eurokoa (letretan eta zenbakietan). Bertan, hain zuzen ere, kontzeptu guztiak egongo dira sartuta, hau da, gastuak, edozein zerga-esparrutako tasak zein arielak eta kontratistaren mozkin industrialak.

IV.- Proposamen ekonomiko hau egitean, enpleguaren babesaren, lan-baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenen ondorioz sortutako betebeharrak hartu dira kontuan.

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.**  
**(Agiri administratiboak hasiera batean aurkeztu behar direnean erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez)**

..... jaun/andreak,  
.....(e)ko ..... helbidea eta  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi:  
administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko  
..... helbidea, ..... PK,  
..... telefonoa, ..... faxa, ..... IFK eta,  
hala badagokio, lizitazio-prozesuko komunikazioak zein jakinarazpenak eta kontratazioko  
izapideak egiteko orduan .....@..... postontzi elektronikoa dituela kontuan  
hartuta,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

I. Ordezkatzen duen enpresak legearen arabera eta orri honetan kontratatzeke eskatzen diren baldintzak betetzen ditu, eta ez dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debekuren baten eraginpean.

II. Bere eskaintza egiteko orduan, honako arlo hauetako indarreko xedapenen ondorioz sortutako betebeharrak hartu ditu kontuan: enpleguaren babesa, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumenaren babesa.

III. Behar besteko konpromisoa hartzen du, betekizun horien betearazpenaren egiaztagiria kontratazio-organoak eskatzen dizkioneko edozein unetan aurkezteko. Dena dela, esleipen-proposamena bere aldekoa bada, esleipena egina baino lehen aurkeztu beharko ditu.

IV. Lizitazio honi begira, adierazi egiten du kontratuko esleipendun aukeratzen badute honako hauxe izango dela kontratuaren helburu den jarduera garatzen duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa: : .....  
(sektorea eta lurralde-eremua zein diren adierazi).

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA,**  
**ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKUPEAN ETA**  
**BATERAEZINTASUNPEAN EZ DAUDELA, ZERGEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN**  
**ARLOKO BETEBEHARRAREN BETEARAZPENEAN EGUNEAN DAUDELA ETA URDUÑAKO**  
**UDALAREKIN NAHITAEZKO EPEALDIAN ZERGA-ZORRIK EZ DUTELA EGIAZTATZEKO.**

..... jaun/andreak,  
.....(e)ko ..... helbidea eta  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi:  
administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko  
..... helbidea, ..... PK,  
..... telefonoa, ..... faxa, ..... IFK eta,  
hala badagokio, lizitazio-prozesuko komunikazioak zein jakinarazpenak eta kontratazioko  
izapideak egiteko orduan .....@..... postontzi elektronikoa dituela kontuan  
hartuta,

**HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:**

I. Ordezkatzen duen enpresak legearen arabera eta orri honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ditu, eta ez dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeko zehaztutako debekuren baten eraginpean.

II. Enpresak adierazi egiten du egunean dagoela indarreko xedapenen arabera zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan ezarritako betebeharren betearazpenean eta Urduñako Udalarekin ez duela inolako zerga-zorrik nahitaezko epealdian.

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

#### **IV. ERANSKINA. ABEE ERATZEKO KONPROMISOA.**

..... jaun/andreak,  
.....(e)ko ..... helbidea eta  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi:  
administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko  
..... helbidea, ..... PK,  
..... telefonoa, ..... faxa eta ..... IFK  
dituela kontuan hartuta,

..... jaun/andreak,  
.....(e)ko ..... helbidea eta  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi:  
administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko  
..... helbidea, ..... PK,  
..... telefonoa, ..... faxa eta ..... IFK  
dituela kontuan hartuta,

**HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:**

I. Aldi baterako elkartearen araubidepean, batera eta elkartasunez elkarri derrigortzen diote ..... kontratua betetzera, onartutako orrietan eta, inolako salbuespenik gabe, oso-osorik eta berariaz men egin eta onartzen dituzten kontratuzko gainerako agirietan xedatutakoaren arabera.

II. Enpresa bakoitzak honako partaidetza hau dauka aldi baterako elkartean:

III. .... elkarteko ordezkari edo ahalordedun bakarra izango da, eta ahalorde askietsiak izango ditu, kontratuek dirauen bitartean eta amaitu arte eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondorioz sortutako betebeharrak betetzeko. Izan ere, enpresetako erabateko ordezkaria izango da Urduñako Udalaren aurrean.

IV. Kontratuko esleipendun aukeratzen badute, aldi baterako elkartea modu formalean eratzeke behar besteko konpromisoa hartzen du.

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**V. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, EUSKO JAURLARITZAKO (EDO, HALA BADAGOKIO, ESTATUKO) KONTRATISTEN ERREGISTROKO DATUAK BALIOZKOAK DIRELA AZALTZEKO.**

..... jaun/andreak,  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi: administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko .....  
IFK dituela kontuan hartuta,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN KONTRATAZIO-MAHAIKO PRESIDENTEAREN AURREAN:

Eusko Jaurlaritzako (edo, hala badagokio, Estatuko) Kontratisten Erregistroak egindako ziurtagirian azaltzen diren datuen eta inguruabarren baliotasuna eta indarraldia, eta, batez ere, SPKLTBko 60. artikuluan kontratatzeke aurreikusitako debekupean ez daudela adierazten dutenena.

Kasuan kasuko ondorioetarako halaxe agertu dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du.

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**VI. ERANSKINA. EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA.**

(Esleipendunak eskatu ondoren aurkeztu beharrekoa)

..... jaun/andreak,  
..... NAN dituenak, bere izenean edo .....  
enpresako ..... moduan (ordezkaritza-eskumenak zein diren adierazi: administratzaile bakarra, ahalordeduna...), enpresa horrek .....(e)ko .....  
IFK dituela kontuan hartuta,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

1.- Tokiko zergen arloan ezarri beharreko indarreko arautegiaren eta, zehatz-mehatz, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautzen duenaren arabera, zerga horren matrikulako hurrengo epigrafeetan alta hartu duela eta indarreko datan hurrengo epigrafean baja hartu ez duela azaltzen duen adierazpena aurkeztu beharko du derrigorrean:

-----  
-----

2.- Era berean (kasuan kasuko aukera hautatu):

- Zerga ordaindu behar du, eta azken ordainagiriaren/en kopia erkatua/k erantsi du/ditu.
  - Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauko Testu Bategineko 5.1. g) artikuluan zehaztutako salbuespenpean dago.
- (Zerga horretako lehenengo bi zergaldietan jardunean hasten diren subjektu pasiboak).

*Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauko Testu Bateginako 5.1. h) artikuluan zehaztutako salbuespenpean dago.*

*(2.000.000 eurotik beherako eragiketa-kopurua duten subjektu pasiboak).*

**Kasuan kasuko ondorioetarako halaxe agertu dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du.**

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**VII. ERANSKINA. ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK ISILEKOAK DIRELA ADIERAZTEKO EREDUA.**

**(ADMINISTRAZIOAK ESKATZEN DUENEAN BAKARRIK AURKEZTU BEHARREKOA)**

Nik, .....  
jaun/andreak, .....(e)ko .....  
.. helbidea eta ..... NAN dituenak, bere izenean edo  
..... enpresako ..... ordezkari moduan, enpresa horrek  
.....(e)ko .....  
helbidea, .....PK, ..... telefonoa eta ..... IFK dituela  
kontuan hartuta,

**HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DUT:**

..... (zer gutun-azal den jarri) gutun-azalean aurkeztutako agirietan, eskaintzako informazio eta agiri hauek izango dira isilekoak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta daudelako:

.....  
.....  
.....

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n.

Iz.:

Enpresaren zigilua:

**VIII. ERANSKINA. ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA.  
(ESLEIPENDUNAK AURKEZTU BEHARREKOA)**

..... aseguru-konpainiak, .....(e)n  
bulegoa duenak, ..... IFZ daukanak eta .....(e)ko Merkataritza  
Erregistroan inskribatuta dagoenak,

**HONAKO HAUXE ZIURTATZEN DU:**

..... enpresak, ..... helbidea eta  
..... IFZ dituenak, ..... zenbakidun aseguru-poliza dauka kontratatuta,  
indarrean dago eta egunean dauka ordainketa, Bilboko Udalak enpresa horren alde esleitutako  
kontratua arautzen duten klausula administratibo partikularren orrietan xedatutakoa kontuan  
hartuta.

.....(e)n, 201...(e)ko .....aren .....(e)(a)n egindakoa.

(Aseguru-konpainia),

Sinadura:"

115. artikuluko 4. idatz-zatian honako hauxe adierazten dela hartu beharra dago kontuan: *“kontratazio-organoa izango da klausula administratibo partikularren orriak onartuko dituena, eta orri partikularren ereduak ere onartu ahal izango ditu antzeko zenbait kategoriatarako.”*

Hori guztiori dela eta, honako hau erabakitzen du Udalbatzak:

*“1.- Zerbitzuak zenbait esleipen-irizpide kontuan hartzen dituen prozedura irekiaren bidez kontratatzeke klausula administratibo partikularren orri eredugarria onartzea, aurrean adierazitakoaren arabera.*

*2.- Kontratazio-organoa Udalbatza denean ezarri beharko da eredu hori.*

*3.- Udalaren web orrian argitaratzea.”*

Urduñan, 2016ko azaroaren 30ean.